

EITB TALDEA

«Go!azen 7.0» TELESAILAREN ONLINE CASTINGEAN PARTE HARTZEKO EITB-RA MATERIALAK BIDALTZEKO BALDINTZAK

1

EITB komunikazio-taldeak (aurrerantzean, EITB) asmoa dauka, PAUSOKA ENTERTAINMENT SLrekin batera, 'Go!azen 7.0' izena izango duen telebistako telesail bat produzitzeko, eta bere mendeko EITBNET SAU (helbide soziala: Basurtuko kaputxinoak 2, 48013 Bilbo) sozietatearen esku utzi du produkzio horren **online castinga** kudeatzea eta antolatzea.

➤ **Dinamika:**

Prozesu honetan zehar telesailean aktore lanetan arituko diren 3 gazte aukeratuko dira. 16 eta 22 urte arteko neska-mutilei zuzendutako castinga da hau. Euskaraz interpretatzen, abesten eta dantzan moldatzen diren aktoreak bilatzen dira.

Casting prozesuak hainbat fase izango ditu. Lehendabizi, online castinga izango da. Bertan parte hartzen dutenetako batzuei aurrerago egingo diren probetarako deitu dakieke. Prozesu honetan zehar hainbat proba egingo zaizkie hautagaiei, online moduan edota aurrez aurre, harik eta aktore definitiboak aukeratu arte.

Lehen fasean, hautagaiak bideo bat igo behar dute

<https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/goazen/casting/> web atarira.

Bideo horretan hainbat gauza egin behar ditu hautagaiak: bere burua aurkeztu, 'Go!azen' telesailean zergatik nahi duten lan egin azaldu eta gaur egungo pertsonaietatik berarentzat zein den egokiena adierazi, eta abesten edo dantzatzen badakitela erakutsi behar dute.

Behin lehiakideek igorritako bideoak PAUSOKA ENTERTAINMENT, S.L.k ikusi eta aztertuko dituenean, ekoiztetxea aukeratuak izan diren parte-hartzaileekin harremanetan jarriko da lehiaketaren inguruko gainerako xehetasunen inguruan azalpenak eman eta jarraitu beharreko gainerako urratsak zeintzuk izango diren azaltzeko.

➤ **Baldintza orokorrak:**

EITBra bideoa bidaltzen duen hautagaiak bermatzen du, bere kasuan, beharrezko baimenak lortu dituztela bideoan agertzen diren kide guztiengandik, batik bat dokumentu honen gaia den izena emateko prozesuan horien ordezkari jarduteko ahalmenari dagokionez.

Jasotako materiala argitaratu, erreproduzitu eta publikoki komunikatu ahal izango dute EITBk eta bere mendeko sozietateek, eta hirugarrenei laga ahal izango diete. Material hori horizontalean bidaltzea eskatzen da.

Parte-hartzaileak, halaber, baimena ematen dio EITBri eta haren mendeko sozietateei materiala www.eitb.eus webgunean eta taldearen edozein programatan txertatzeko, bai eta erreproduzitzeko, eraldatzeko eta publikoki komunikatzeko ere, edozein euskarritan eta erreproduzio teknikorako edozein prozedura eta edozein ustiapen-sistema erabiliz, horren barne sartuta espresuki bideo euskarria, internet bidezko hedapena eta garapen interaktiboa (APPak barne), mundu guztian eta legezko indarraldi osoan zehar, hirugarrenei lagatzeko aukera barne.

Parte-hartzaileak baimena ematen dio EITBri bere programen promozioa egiteko materiala erabil dezan.

Halaber, parte-hartzaileak honako hauek bermatuko ditu:

- 1) Materiala parte-hartzaileak lortu duela zuzenean, materialaren gaineko eskubideen jabetza eta kontrola dituela eta agiri honetan zehaztutako baldintzetan EITBri lagatzeko gaitasuna duela.
- 2) Materialaren edukiaren artean ez dagoela inolako pertsona, enpresa edo elkarterentzako difamaziorik, irainik edo kalumniarik, materiala benetakoa eta autentikoa dela eta ez dituela hirugarrenen jabetza intelektualeko, jabetza industrialeko edo bestelako eskubideak urratzen.
- 3) Eskubide-lagapen hau gauzatu ahal izateko, materialean agertzen diren pertsonen baimenak dituela. Materialean 16 urtetik beherako pertsonaren bat agertuko balitz, beharrezkoa da gurasoek, tutoreek edo legezko ordezkariak baimena ematea.
- 4) Berak eta bideoan agertu daitezkeen guztiek 16 urte baino gehiago dituztela.
- 5) Parte-hartzailea ez dela EITB taldeko plantillako langile baten zuzeneko edo alboko ahaidea, odol-ahaidetasuneko bigarren mailara arte. Muga hori errespetatu beharko da ere EITB taldea osatzen duten sozietateetako langileekiko eta lehiaketa/zozketa antolatzen eta gauzatzen zuzenean edo zeharka parte hartu duten guztiekiko.

EITBk materiala ez hedatzeko eskubidea du.

DATU PERTSONALAK BABESTEKO POLITIKA INFORMATIBOA, PARTAIDETZA INTERAKTIBOARI DAGOKIONA

Izen emateko eskabidea bidaliz gero, zure datu pertsonalak erabiltzea onartu, eta beraz, jarraian adieraziko diren jardueretarako tratatzeko baimena emango duzu.

DATUAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Arduraduna

Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?

EITB-EUSKAL IRRATI TELEBISTA - RADIO TELEVISIÓN VASCA

	<p>ERAKUNDE PUBLIKOA Q0191001G ETB A48139232 EUSKO IRRATIA A01026699 RADIO VITORIA A48139224 EITB NET A95267936 Helbidea: Basurtuko Kaputxinoen kalea 2, 48013 Bilbo, Bizkaia Telefono-zenbakia: 94653000 Helbide elektronikoa: info@eitb.eus Pertsonak eskubideak gauzatu ahal izateko helbidea: EITBren Aholkularitza Juridikoa (Araubidea), Basurtuko Kaputxinoen kalea 2, 48013 Bilbo (Bizkaia) Datuen Babeseko ordezkariarekin harremanetan jartzeko helbidea honako hau da: dbo-dpd@eitb.eus</p>
Xedea	<ul style="list-style-type: none"> • «Go!azen 7.0» telesaileko parte-hartzaileen hautaketarako datuak kudeatzea. • Programaren produkzioa eta promozioa kudeatzea • Komunikazio pertsonalizatuen bidalketa kudeatzea, bitarteko elektronikoa edo konbentzionalen bidez, etorkizunean ikus-entzunezko programetan parte hartzeko.
Legitimazioa	<ul style="list-style-type: none"> • Pertsonak izena emateko inprimakia betetzen duenean ematen duen baimena, Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorren 6.1.a) artikuluari jarraituz.
Hartzaileak	<ul style="list-style-type: none"> • EITB eta bere taldeko sozietateak: EUSKO IRRATIA, RADIO VITORIA, ETB eta EITBnet. • PAUSOKA ENTERTAINMENT ekoiztetxea, lehen adierazitako xedeetarako bakarrik.
Kontserbazioa	<p>➤ Datu pertsonalak bildu ziren xedea betetzeko beharrezkoak diren heinean gordeko dira, eta blokeatu egingo dira xede horietarako beharrezkoak izateari uzten diotenean.</p>
Eskubideak	<p>Zer eskubide dituzu datuak ematen dizkiguzunean?</p> <p>➤ Edozein pertsonak EITB TALDEA osatzen duten enpresak bere datu pertsonalak tratatzen ari diren edo ez jakiteko eskubidea du.</p> <p>➤ Interesdunek beren datu pertsonalak eskuratzeko, datu okerrak zuzentzeko eskatzeko, edo hala badagokio, ezabatzeko eskatzeko eskubidea dute, besteak beste, datuak dagoeneko ez badira beharrezkoak horiek jasotzea eragin zuen xederako.</p> <p>➤ Inguruabar jakin batzuetan, interesdunek beren datuen tratamendua mugatzeko eskatu ahal izango dute. Kasu horretan, erreklamazioak egiteko edo horien aurrean defendatzeko bakarrik gordeko ditugu.</p> <p>➤ Inguruabar jakin batzuetan, interesdunek beren datuak tratatzearen kontra egin dezakete, beren egoera zehatzarekin lotutako arrazoiengatik. Kasu horretan, EITB</p>

	<p>TALDEKO enpresek datuak tratatzeari utziko diote, ezinbesteko arrazoi legitimoengatik edo erreklamazio posibleak egin edo horien aurrean defendatzeko izan ezik.</p> <p>➤ Interesdunek datuen eramangarritasuna eskatu ahal izango dute, EITB TALDEARI eman dizkieten datuak formatu egituratu batean lortzeko, erabilera komunean eta irakurketa mekanikokoa, bere horretan deskargatuak izateko edo EITB TALDEAK beste erakunde bati transmititzeko.</p> <p>Interesdunak dbo-dpd@eitb.eus helbidera mezu elektronikoa bidaliz gauzatu ditzake bere eskubideak. Gainera, Datuak Babesteko Agentziari erreklamazio bat aurkez diezaioke, bereziki, bere eskubideen gauzatzean gogobeteta geratu ez bada, www.agpd.es webgunean adierazitako posta-helbidera eta/edo elektronikora idatziz.</p>
Segurtasuna	Datuak modu konfidentzian tratatuko dira, aldatzea, galtzea, edo baimenik gabe tratatu edo eskuratzea saihesteko egokiak diren segurtasun-neurri teknikoak eta antolakuntzaren arlokoak erabilia.